

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Kultur programak ostegunetik igandera kontzertuak eskainiko ditu Zugarramurdin, Orbaizetan eta Orreagan

Izarrak eta Keltiar taldeen bi folk-kontzertuak eta Aurizperriko Auzberri abesbatzaren emanaldiak osatuko dute programa

Asteartea, 2016.eko uztailak 5

Kulturako Zuzendaritza Nagusiko Kultur programak udako bere bideari jarraipena emango dio asteburu honetarako prestatutako programazio berriarekin. Hala, ostegun honetan, hilak 7, Zugarramurdi bisitatuko du, 18:00etatik aurrera Izarrak taldearen folk-kontzertu bat eskaintzeko sorginen kobazuloan. Orbaizetara helduko da ostiralean, hilak 8, eta bertan Keltiar fusioko folk-taldearen txanda izango da pilotalekuan, 19:30etik aurrera. Larunbatean, hilak 9, Orreagan egingo du geldialdia Aurizperriko Auzberri abesbatzaren emanaldia ikus-entzuteko Errege Kolegiatako elizan.

Kultur-ek musika-eskaintzak egingo ditu, ostegunetik larunbatera, ekainaren 17tik irailaren 10era arte Nafarroako 38 udalerritan eta toki berezietan; egunero kontzertu eta aisialdiko iradokizun bat eskainiko du emanaldiak antolatzen diren udalerrri bakoitzean. Jarduera horien barnean daude: zaldi gaineko ibilaldiak, mendi-irteerak, hegaztien behaketa, baltsan errekan behera jaistea, kobazuloak bisitatzeko, baserri-eskolak, ardo- eta patxaran-dastatzeak, basoko gau-bisitak, gastronomia-produktuen establezimenduak bisitatzeko (gaztak, upategiak...), edo jauregi, monasterio eta elizetara egindako bisita gidatu literarioak, beste proposamen askoren artean.

Emanaldien programa

Ostegunean, uztailak 7, Izarrak folk-taldea ariko da Zugarramurdiko sorginen kobazuloan, Aldudeko bailarako (Nafarroa Beherea) lau gazte abeslarik osatutako taldea. 2004an, Nafarroa Behereko Kauntu Txapelketan bigarren postuan sailkatu ondoren, *Izarrak* beren lehenengo diskoa argitaratu zuten. Haren atzetik etorri zen *Biziari So*, Niko Etxart, Itxaro Borda, Philippe Albor eta Jeann Louis Davant-en kolaborazioekin. Besteak beste, Londresen, Dublinen eta Parisen eman dituzte kontzertuak. 2012an, *Erokeriaz* izeneko hirugarren diskoa aurkeztu zuten.

Ostiralean, hilak 8, Keltiar taldeak emanaldia eskainiko du Orbaizetako pilotalekuan; talde horrek bi disko kaleratu ditu: *Keltiar Aldea* eta *Goidelic* (2005 eta 2007), eta bietan hainbat musika-genero nahasten dituzte folkaren eskutik.

Azkenik, larunbatean, hilak 9, Aurizperriko Auzberri abesbatzak Orreagako Errege Kolegiatako elizan abestuko du. Otsagi-Ochagavía,

Erronkari-Roncal, Orreaga-Roncesvalles eta Aurizberri-Espinal-en, urtero txandakatuz, antolatzen diren Pirinioetako Abesbatzen Topaketan parte hartzen du duela zenbait urtetatik. Nafarroako Kontzertuak eta Bideko Kontzertuak zikloan parte hartu dute, gainera, Nafarroaren Egunean eta beste Musika Jardunaldi batzuetan.

Turismo eta aisialdiko eskaintza

Uztailaren 7an, Zugarramurdiko kultur eskaintzarekin batera, kobazulora bisita gidatu bat egiteko aukera izango da. "Zugarramurdi desde todos los sentidos" (Zugarramurdi, zentzumen guztietatik") izenburua duen bisitaren barnean edari magiko bat dastatuko da. 16:00etan izango da, eta ordubete inguru iraungo du. 3,50 euro ordainduko dute helduek eta 2 euro 6 eta 12 urte arteko haurrek.

Aldez aurretik erreserbatu daiteke, eta sarrerak Sorginen museoan jaso daitezke (Tel.: 948 599 004, info@zugarramurdi.es).

Uztailaren 8rako, Orbaizetan, Irati bisitatzeko paseo bat antolatu da ilargiaren argipean; ordubete iraungo du, eta 22:00etan hasiko da, afari batekin. Hamar euroko prezioa du.

Lekua Itarinaturan erreserba daiteke (Tel.: 660 268 750, itarinatura@itarinatura.com).

Eta, hilaren 9an, emanaldia Errege Kolegiatara eta museora egingo den bisitaldi batekin osatuko da (17:00). Ordubete eta erdi iraungo du eta 5 euro ordaindu beharko dira. Erreserbak Auriaorreagan egin daitezke (Tel.: 670 289 997, auriaorreaga@gmail.com).